

Elgoibar - 1300. zenb.  
XXX urtea - 2023-09-29



TOKIKOM

BARREN

# Sagastian saltaka



CATT



## *Ana Mari Loyola Oria*

2023ko irailaren 20an hil zen, 84 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Ion Garate Guenaga*

*"Katalo"*

2023ko abuztuaren 18an hil zen, 43 urte zituela.  
Familiak eskertzen ditu jasotako doluminak  
eta maitasun keinuak.



I.URTEURRENA

## *Amagoia Aranburu Arrate*

1965-2022

***Beti gure bihotzean.***

Zure lagunak



## *Felisa Arrate Kortabitarte*

2023ko irailaren 26an hil zen, 94 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Felisa Arrate Kortabitarte*

***Maitasuna ez da inoiz itzaltzen,  
eta inoiz itzaltzen ez delako,  
gogoan zaitugu.***

Zure bilobak



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Edurne Izagirre

Psikologoa

## Berdintasunaren iruzurra



**"Izugarri irabazi dugula  
saltzen digute etengabe,  
eta hainbat onura  
izan ditugunez, hala sinistu  
nahi izan dugu"**

Azkenaldian burura behin eta berriro etortzen zaidan esaldi batekin hasiko naiz: 'Analisia ez bada zuzena, esku-hartzea ezin da eraginkorra izan'. Berdintasunaren alde egotea nola ulertzen dugu? Nola irudikatzen dugu berdintze hori? Norbait pareko sentitzeko, berdinak izan behar al gara? Zertan berdinak?

Genero desoreka mahaigaineratzean, emakume aktibistak martxan jarri ginen berdintasunerako bidean pausoak eman nahian; gure eskubideak aldarrikatu, prestakuntza eta lan aukerak indartu, eremu hauetan diskriminazioa gutxitzeko politikak ezarri etab. Pribilegio maskulino gisa identifikaturiko horiek geuretzat nahi izan ditugu eta gure eremu segurutik irten eta erronka ezberdinei aurre egin diegu. Horrela, gure barne-ahots berriak sortzen joan dira: 'pragmatikoagoa izan behar naiz', 'neure beharrak ere artatu behar ditut', 'neure zaletasunak garatu', 'asertibitatea landu' etab. Baina, guztiok bagabiltza pribilegio leku baten bila, nor izango da bizitzaren euskarri?

Gaur egun nire esparruan topatzen ditudan emakumeen barne-ahotsak bortizki mingarriak dira; berdintasunaren garaian gaudela sinisteak, zailago egiten du sentitzen dugun itolarriari zentzua bilatzea, bizitza eta zaintzaren sostengua izaten jarraitzen dugula altuan esatea; berak erostetak egin, haurrak kirolera eramane eta afaria egiten duenean, egozentrismo gisa ulertzen dugu, onartezina geuretzat.

Aldaketaren ilusio optikoak nahasmen handia sortzen digu; azalekoan jarri dugulako fokoa, aldatzen errazena den horretan, lege eta protokolo bitartez, eraginkortasuna salduz. Izugarri irabazi dugula saltzen digute etengabe, eta hainbat onura izan ditugunez, hala sinistu nahi izan dugu; baina barne mailan, onura garaian sufrimendua handitzea ulertu ezinik gabiltza, eta itxuran gizartea aldatu denez, pentsatzen dugu geure izaera edo gaitasun gabezia dela sufrimendu horren arrazoa; soziala eta politikoa dena maila pertsonalean, bakardadean, konpondu nahian ari gara.



*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### Osakidetzako murrizketak

Orain dela hilabete batzuk, ESI Debabarrenako erantzuleek adierazi zuten Gasteizko Osakidetzaren Zuzendaritzak ez ziela koderik jarriko, aurrez koderik ez zuten plaza denei. Gainera, orain, plaza horietan dauden langileei ezin zaie kontraturik luzatu.

Egun, badakigu sei langiletan gutxituko dela TCAE kategoriko plantilla eta mantentze-lanetan beste hiru langiletan. Gainera, esan digute Gizarte Langile bakarria izango duela ESI Debabarrenak 2023ko irailaren 30etik aurrera, lehen bi zirenean.

Ezinezkoa da, ESI Debabarrenako bi ospitalean eta aldi berean, langile bakarrak aurre egitea lanpostu honen betebeharreri. Horregatik, bi zentroen zuzendaritzak erabaki du Gizarte Langilea beharrezkoagoa dela Eibarko ospitalean, Mendaroko ospitalean baino.

Ondorioz, sareko beste ospitaleekin alderatuz, Mendaroko ospitaleak ez du Gizarte Langilerik izango aurtengo urriaren 2tik aurrera eta ezingo dira artatu Gizarte Langilearen beharra duten Mendaroko ospitaleko erabiltzaileak. Egoera honen ondorioak erraz uler daitezke: urgentziatzko laguntza teknikoak ezin eskatzea, batezbesteko egonaldia luzatzea, Eibarko ospitalera joateko itxarote-zerrenda luzatzea, larrialdietatik gizarte arazoengatik ospitaleratzen diren pazienteei erantzunik ezin ematea, langileen gaitz, intrusismo profesionala egozteko Gizarte Langilearen betebeharrak egiten ari diren beste langileei etab.

Garbi dago azaldutakoak ESI Debabarrenak ematen duen arreta okertuko duela. Okertze hori osasungintza publiko eta kalitatezko eredu idealaren aurkakoa da, baita *Denok batera Osakidetzaren etorkizunerantz bultzatuz* Plan Estrategikoaren aurkakoa ere eta herritarren zaintza beharrei egoki erantzutea eragozten du.

Bereziki garrantzitsua izan da, gainera, Gizarte Langilearen eragin positiboa lanean hasi zenetik, pazienteei emandako zaintzan eta diziplinarteko lankidetzan.

Beraz, sinatzaileok, adierazi nahi dugu erabaki hauen aurka gaudela eta hausnarketa eskatu nahi dugula hartutako erabakia atzera botatzeko lehenbailehen, aipatutako lanpostuak mantentzea beharrezkoa dela uste dugulako, etorkizunean beharrezkoak izan daitezkeen beste erabakiei kalterik egin gabe.

### Eibarko eta Mendaroko ospitaleetako langileak

### Ordenantza fiskalak: kalitatezko zerbitzuak inor atzean utzi gabe

Zergak biltzea beharrezkoa da gure herritarrei zerbitzu publiko onenak bermatu eta eskaintzeko, gizarte-babesa bermatuko duen udal politika publikoak garatuz.

Fiskalitatea aberastasuna birbanatzeko tresna izanik, eta azken urte eta hilabeteetan biztanleriaren egoera sozioekonomikoak okerrera egin duela kontuan hartuta, fiskalitate eredu progresibo batean sakondu beharra dugu, gizarteari gure ahalmen ekonomikoaren arabera ekarpena eginez, guztion erantzukizunarekin gizarte kohesionatuagoa lortzeko.

EH Bildutik, beste neurri batzuen artean, tasa eta prezio publikoetarako hobari taula bat aplikatzea proposatu dugu, familia unitateen kide kopurua eta errenta maila kontuan hartzen duena, hondakinak, Herribusa edo kirol-instalazioen tarifetan aplikatuko litzatekeena.


Justizia sozialeko irizpideei jarraiki, EH Bildutik etxebizitza politikan ganoraz sakontzeko garaia iritsi dela uste dugu, hutsik dauden etxebizitzak alokairura bideratzeko eta gure herritar sektore desberdinen emantzipazioa ahalbidetu dezakeena.

Aurrean dugun larrialdi klimatikoaren aurrean, erakunde publiko guztien erantzukizuna da eskura ditugun tresna guztiak erabiltzea trantsizio eko-sozialari eta, bereziki trantsizio energetikoari aurre egiteko. Foru-arauek ezartzen dituzten mugak kontuan hartuta, progresibitatean sakontzeko tartea dugu, errekaudazio eta hobarietako sistema bidezkoago baten bidez, ibilgailuen trakzio mekanikoaren gaineko zergaren aplikazioan edo energia berriztagarrien aprobetxamendu sistema eta mugikortasun planen sustapenerako hobariak eskainiz.

Ezinbestekotzat jotzen dugu fiskalitateari buruzko eztabaidari sakon heltzea, bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera ordain dadin, enpresen ekarpenak handitzeko, eta genero ikuspegia kontuan hartuz, fiskalitate progresibo eta solidarioa eraiki herritar guztiei kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzeko.

Zoritxarrez, EAJ-PSOE bikoteak hamarnaka urtez ia aldatu ez den fiskalitate ereduari eutsi dio eta gizartearen egungo behar ekonomiko ezberdinei muzin eginez, eredu kontserbadoreari eustea proposatu du. Ez da hori EH Bilduren bidea.


**Elgoibarko EH Bildu**



**Ikur honek euskara erabiltzeko aukera bermatzen dizu**

Harremanetareko:  
kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus  
643 499 169

Informazioa:  
www.euskarazbarrabarra.eus





## OSASUN GIDA

### Gidan agertzearen onurak!

**22€**  
hilean

**22 €ren truke, hileroko, zure osasun zentroaren eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.**

**12**  
aldiz urtean

**BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleho ikusiena.**

**4.885**  
ale astero

**4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.**

**Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzeko.**

☎ 943 744 112  
baren.pubi@elgoibarkoizarra.eus

Aito Agirre Kulturguneko, 3., 3. esk  
20870 ELGOIBAR

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### Autobus geltokietan panel informatiboak

**falta dira:** Herritar batek autobus

geltokietan panel informatibo digitalen falta somatu du. Eibarren dauden bezala, Elgoibarren ere ordutegi eguneratuak jasoko litzuketan informazio panelak behar direla uste du. BARRENEK Elgoibarko Udalerara jo du, eta Maialen Gurrutxaga alkateak ondorengo erantzun du: "Autobus geltokietan panel informatiboak jartzea mahai gainean dugun lan bat da. Diagnosi bat egiten ari gara herriko markesinen egoera aztertu eta dauden beharrak asetzeko. Datozen egunetan, King Kongeko obra dela-eta, bertako markesina denboraldi baterako ez da erabilgarri egongo. Gure helburua da King Kong-eko markesina bere lekura bueltatzerako, adierazitako lanak burututa egotea".



### Maalako parkeko iturri aurrean

**lokatzak sortzen da:** "Maalako parkeko

iturri aurrean belarra zegoen lehen, baina orain dena hondatuta dago eta lokatz putzu bihurtu da. Hobe litzateke baldosa batzuk jartzea gainerako parkean bezala, lokatzik sortu ez dadin. Umeak ura edatera hurbiltzen diren bakoitzean, oinak zikin-zikin eginda bueltatzen dira".



### Estoldetako tapak falta dira:

"Herriko estolderiak ez daude behar bezala zainduta


herriko zenbait lekutan. San Bartolome eta San Frantzisko kaleetan, esaterako, hainbat tapa falta dira. Eskertuko genuke konpontzea".



Komertzioekin lan egiten dugu  
(etxeko ehungintzeekin eta jantziekin)  
**TARIFA BEREZIAKI!**

**Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?**  
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurria.  
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,  
edozein ehun konpondu ahal izateko:

**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK  
ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



## Demetrio Vallejo zena omendu du Elgoibar1936 taldeak



**E**lgoibar1936 memoria historikoaren aldeko taldeak Demetrio Vallejo EAE-ANVko kide izandakoa omendu zuen zapatuan, tropa frankistak Elgoibarrera sartu ziren egunaren urtemugaren bueltan egin ohi duen urteroko ekitaldiaren barruan. 1936ko irailaren 21ean sartu ziren erreketen, falangista eta soldadu frankistak Elgoibarren, eta Maalatik Kalegoen plazarako bidean zirenean, 'Gora Euskadi askatuta' oihu egin zien Demetrio Vallejok etxeko balkoira irtenda. Eta hain justu ere, Errosario kaleko 27. zenbakian, Vallejo bizi izan zen atarian, egin zuten omenaldia.

Iñaki Odriozola Elgoibar1936 taldekoak testuinguruan jarri zituen omenaldira batutakoak.

Han ziren, Demetrio Vallejoren alaba Maite Vallejo eta gertuko beste zenbait senide, bai eta Maialen Gurrutxaga alkatea eta EAJko eta EHBilduko zenbait udal ordezkari ere, herritarrez inguratuta. Mauxitxa txarangakoei ere parte hartu zuten ekitaldian. Lau kantu interpretatu zituzten: *Eusko Gudariak*, *Bella Ciao*, *Gora Bosgarren Brigada* eta *A la barricadas*. Demetrio Vallejo zenaren suin Enrike Larrañagak ere hartu zuen hitza. Mikrofona hartu eta galdera bat egin zien han bildutakoei, gogoetarako balio zezakeelakoan: "Indarkeriarekin soluzionatzen al dira gauzak?". Ondoren, krabelina bana banatu zien Odriozolak omenaldira batutakoei eta Kultur Etxeko atarian, Arturo Andraderen eskulturaren, laga zituzten.



### Ion Garate 'Katalo' omenduko du ezker abertzaleak urriaren 21ean

Abuztuaren 18an hil zen Ion Garate Guenaga *Katalo* elgoibartarra omenduko dute Elgoibarko ezker abertzalekoek urriaren 21ean. Giza Eskubideen parkean (Ustuako parkea) egingo dute omenaldia, 13:00etan.

### Hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar Elgoibarren

Hileko azken zapatua da biharkoa, eta ohi legez, azoka egingo dute Elgoibarren. Baserriko produktuak erosteko aukera izango da Kalebarren plazan, 09:00etatik 14:00etara bitartean, eta eguerditik atzera ganadu erakusketa ere egingo da Kalebarrenen. Hilabete honetan C.D. Elgoibarkoek hartuko dute azokako

txosnaren ardura. Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin eginiko pintxoak salduko ditu 10:00etatik atzera. Horren harira klubetik jakinarazi dute kamisetak eta otar bat ere zozkatuko dituztela eta baliatuko dutela egun hori C.D. Elgoibarreko bazkide txartelak banatzeko ere.

## Ordenantza fiskalak %2,7 handituko dituzte Elgoibarren, eta zaborraren gaineko tasa %10ean

**E**lgoibarko Udalaren martitzeneko osoko bilkuran onartu zuten datorren urterako ordenantza fiskalak eguneratzea, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. EH Bilduk kontra bozkatu zuen.

Abuztuko KPI indizea kontuan hartuta egin dute eguneraketa: tasa fiskalak %2,7 handituko dituzte, eta salbuespena izango da zaborraren gaineko tasa, %10ean handituko dutena. Atsegin Uzuriaga Ogasun zinegotziak azaldu zuen baita ere Debabarreneko Mankomunitateak %10,242ko igoera aplikatu diola Udalari, Udalak herritarrei aplikatutako igoera baino handiagoa: "Udalaren igoerak dirutan familia bakoitzari 1,70 euroko igoera suposatuko dio hilean".

Azken lau urteotan tasak ia izoztuta egon direla azaldu zuen Maialen Gurrutxaga alkateak: "Azken lau urteetan, tasak ia izoztuta mantendu ziren, eta Udalak bere gain hartu zuen karga osoa, hau da, 2.274.000 euro guztira". Aurten, beraz, "udalerriaren egonkortasun ekonomikoari eusteko eta herritarrei kalitatezko zerbitzuak emango zaizkiela bermatzeko", tasak eguneratzea erabaki dute. Udalak hobariak emango ditu, baliabide gutxien dituzten familiei laguntzeko. Tasei buruzko informazio guztia udalaren webgunean: [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus).

### EH Bildu, kontra

EH Bilduk Udal Gobernuak proposatutako igoeraren kontra bozkatu zuen, eta esan zuten fiskalitateari buruzko eztabaida sakon baten beharra ikusten dutela. "Fiskalitatea aberastasuna birbanatzeko tresna izanik, eta azken urte eta hilabeteetan biztanleriaren egoera sozioekonomikoak okerrera egin duela kontuan hartzen badugu, fiskalitate eredu progresibo batean sakondu beharra dugu". Fiskalitate progresibo eta solidarioa eraiki behar dela gaineratu zuten, "herritar guztiei kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzeko", eta EAJ eta PSE-EEri "fiskalitate eredu kontserbadoreari" eustea egotzie zieten.

## Stock feria antolatu du Txankakua merkatarien elkarteak datorren asterako



Txankakuako merkatariek stock feria egingo dute urriaren 5ean eta 6an. Merkatarri bakoitzak bere produktuak jarriko ditu salgai establezimenduaren atarian, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Bi egun horietan erosketak egiten dituzten herritarren artean 400 euro zozkatuko dituzte erosketaren bonoetan. Denda hauek hartuko dute parte: Aranburu bitxi-denda, Arauri lurrindegia, Atelier Oihana, Barrutia Optika, Bizkor bizikletak, Casa Astigarraga, Ecenarro Lentzeria, Federópticos Ikus, G&M jantzi-denda, Garate jantzi-denda, Goiara Drogeria, Ipintza Margoak, Iria moda, Iriondo kirolak, Karkizano, Lagunak Koltxoi-denda, Lete, Modas Ferpi, Nalai oinetakoak, Olaia Martínez estetika zentroa, Pitxintxu, Roteta elektrizitatea, Sara jantzi-denda eta Uzuri optika.

### Altzolako tren geltokiaren aldeko sinadura bilketa bihar, Deban

Euskal Jaia ospatuko dute bihar Deban, eta egun hori baliatuko dute Altzolako tren geltokiaren aldeko plataformakoek sinadurak biltzeko. Joan zen astean moduan, Toletxegaineko apeaderoan jarrita zuten pankarta bat kendu dietela salatu dute.



## Betea dator Dislexiaren astea Elgoibarren



Urriaren 8an dislexiaren nazioarteko eguna dela-eta hainbat ekintza antolatu ditu datorren asterako Debabarreneko Dislexia Elkarteak. Hilaren 2tik 8ra dislexiari buruzko erakusketa egingo dute Kultur Kafean, eta hilaren 4an familiantzako orientazio zerbitzua eskainiko dute 17:00etatik, leku berean. 21:00etan, berriz, dislexiari buruzko dokumentala emango dute Herriko Antzokian, Ongarrirekin elkarlanean. Eguenean, urriaren 5ean, dislexiari buruzko kafe tertulia egingo dute Kultur Kafean, eta, ondoren, pintxo potea egongo da, Aizu! ostalarien elkartearen laguntzaz.

Ospakizun nagusia zapatuan egingo dute, urriaren 7an. 11:00etatik aurrera umeentzako entrenigarriak jarriko dituzte Lekuederren, eta Niala magoaren magia ikuskizuna ere egongo da. Segidan, Mauxitxa txarangarekin kalejira egingo dute, eta 15:00etan Sanlobeer garagardo azokan bazkalduko dute. Gau horretan Aita Agirre eraikina argizatuko dute.

### Gaueko zerua ezagutzeko irteera antolatu dute gaur guerako



*Joan den domekan haziak biltzera egin zuten irteerako argazkia.*

Gure natura ezagutzuz egitasmoaren barruan hainbat ekintza antolatu dituzte Baso Biziak, Morkaikok eta Atxutxiamaikak elkarlanean, Udalaren laguntzarekin. Gaur, gaueko zerua ezagutzeko irteera egingo dute, Idotorbera. 21:00etan batuko dira frontoian, eta nahi duenak bertan afaltzeko aukera izango du, jatekoa etxetik eramanda. Jokin Martinezek gidatuko du saioa, eta eskatu dute linterna eta prismetikoak eramateko.

Hurrengo irteera urriaren 8an egingo dute. Araba aldera joango dira, Galarreta eta inguru hartako paisaia naturala ezagutzera. 6,5 kilometroko ibilbidea egingo dute, 150 metro inguruko desnibelarekin. Bazkaria Leze leize inguruan egingo dute. 09:45ean hartuko dute

autobusa Urazandiko geltokian, eta 16:30 alderako itzuliko dira. Helduek 8 euro ordaindu beharko dituzte, eta umeek 4 euro. Izena emateko: [elgoibarkoizarra.eus](http://elgoibarkoizarra.eus). Informazio gehiagorako 943 741 746 telefonora deitu daiteke.

### Hazi bilketa

Joan zen domekan, bestalde, haziak biltzeko irteera egin zuten. San Rokeko ermitan hasi zuten ibilaldia, eta Goenaga, Basueta eta Azaola baserri inguruetatik, Sallobentera jaitsi ziren. Ezkurak, pagatxak, intxaurrak eta beste hainbat hazi bildu zituzten. Horrez gain, landare inbaditzaileen behaketa ere egin zuten. 40 bat lagunek hartu zuten parte guztira, eta antolatzaileek balorazio positiboa egin dute.

## Etorri berriei harrera egingo diete bihar Aita Agirre kulturgunean

**E**lgoibarko Udalak Harrera Plana jarri zuen abian aurreko legealdian, eta horren barruan harrera gida kaleratu du, herrira iristen direnei oinarrizko informazioa emateko. Gida hori bost hizkuntzatan argitaratu dute: Euskaraz, gazteleraz, ingelesez, frantsesez eta arabieraz. Bihar, harrera egingo diete maiatzetik abuztura bitartean herrira etorri diren 139 lagunei. 11:30ean bilduko dira Aita Agirre kulturgunean, eta harrera gida banatuko diete, bertan datorren informazioa azalduz. Zaintza zerbitzua egongo da, eta arabierarako zuzeneko itzulpena ere egingo dute.



Aurrera begira, herriko eragile eta elkarteekin harremanetan jarriko da Udala, harrera planaren bigarren fasea osotasunean garatzeko.

### Arriaga industrialdeko saneamendu-sarea berritzeko obra hasi dute



Arriaga industrialdeko saneamendu-sarea berritzeko obra hasi du Uraren Euskal Agentziak. Obrak kolektorearen zati batzuetan egingo dira, eta kolektore horiek industrialdeko hondakin-urak Debabarreneko kolektore nagusiarekin lotuko dituzte. Okerrik ezean sei hilabeteko epean amaituko dituzte lanak eta inbertsioa 636.033,24 eurokoa izango da (BEZ gabe).

### Aldenik Alden festa antolatu dute biharko

Kalera irten ziren joan zen barikuan Atxutxiamaikaren *Aldenik Alden* egitasmoko kideak, eta gazteekin batera erabaki zuten programazioa. Biharko, Aldenik Alden festa antolatu dute. Goizean, pista jolas bat egingo dute taldeka, eta eguerdian elkarrekin bazkalduko dute, institutuan. Bazkalostean modu askeago eta lasaiago batean jolasteko aukera izango dute. Urrirako, bestalde, beste bi ekintza antolatu dituzte: orientazio proba egingo dute urriaren 8an, eta gaba beltzaren bueltan Kluedo jokoa antolatu dute urriaren 27rako (atzo itxi zuten izena emateko epea).

### Anbulatorio berria eraikitzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Elgoibarko Udalak eta Osasun Sailak

Elgoibarko Udalak eta Jaurlaritzako Osasun Sailak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Elgoibarren osasun-zentro berria eraikitzeko. Hitzarmen horri esker, Elgoibarko Udalak gaur egun merkatu plaza dagoen eraikina utziko dio Jaurlaritzari, ambulatorio berria eraikitzeko, eta orain proiektua idazteko faseari ekingo diote. Ondo bidean, 2024ko udarako proiektua idatzita egongo da.



# ZORIONEKOA AUTOBUSA HARTZEN DUENA

**Unibertsitatean ikasturtea hasi denetik Zarautzera eta Donostiara joaten den autobusa hartzea ia ezinezkoa da Elgoibarren. Urazandiko autobus geltokian biltzen dira goizero-goizero langile eta ikasleak, egun horretan autobusa hartuko duten edo ez jakin gabe. Autobusak beteta edo oso jarleku libre gutxiarekin iristen dira, eta jendea kanpoan geratzen da. Errefortzuak eskatu dituzte. Lurraldebus arazoaren jakitun da eta linea batzuk indartu badituzte ere, arazoa ez da kopondu.**

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Ordea

Astelehena da, irailaren 25a. 06:30ak dira, eta Zarautz-Donostiarako autobusa 07:50ean iritsiko da. Dozena bat lagun daude geltokian, denak langileak. 20-25 bat minutu aurretik iritsi dira badaezpada, eta ilara egin dute, autobusera igotzeko iritsiera ordena errespetatzen dutelako. "Gaur ez gaude asko", esan du geltokian dagoen batek, eta denak kabituko direla uste du. "Autobus honetan normalean ez da arazorik egoten,

Elgoibarren lan egiten dutenak hemen jaisten direlako, eta gu, igo". Iritsi da autobusa. Jaitsi dira hamar bat lagun, eta hasi dira Elgoibarkoak igotzen. Urrutitik geltokian autobusa ikusi duenik ere bada, eta korrika iritsi dira. "Hau ez da nik hartzen dudana autobusa", esan du korrika iritsi den emakumezko batek. "Nik hurrengo hartzen dut, baina egoten den arazoa ikusita aurretik etorri naiz gaur, ea honetan sartzen naizen". Ez du zorterik eduki, eta hiru lagun kanpoan geratu dira; langileak hirurak. Txoferrak esan die berehala etorriko dela errefortzuko autobusa, eta poztu egin dira hirurak: "Hau sorpresa! badirudi gure kexek izan dutela eragina". Errefortzua iritsi arteko tartearen aprobetxatu dugu beraiekin hitz egiteko. Zarautzera joatekoa zen bat eta beste biak Donostiara. Zarautzera joaten den gizonetako aspalditik erabiltzen du zerbitzu hau, eta aurten gertatzen ari denarekin harrirituta dago: "Bost urte daramatzat Zarautzera autobusez joaten ordu honetan, eta inoiz ez dut egoera hau bizi. Bost urtean hiru bat aldiz geratuko nintzen kanpoan, baina aurten egunerokoa da hau". Ez dakite zer aldatu den aurten, baina izan daiteke trenetako Zumaian aldaketa egin behar delako, eta baita, txartelaren prezioa oso merkea delako ere. Mugi txartelarekin Donostiarako tiketa 1,33 euro ordaintzen dituela aipatu du lanera doanetako batek, baina zerbitzuarekin ez dago gustura. "Ordu erdi aurretik etortzen gara, eta hala ere, ez dugu jakiten autobusa hartuko dugun edo ez". Lanera berandu iristen dira askotan,





eta goizean galdutako denbora hori berreskuratu egin behar izaten dute gero. "Eskerrak behintzat lanera sartzeko ordutegi malgua daukagun!". Elgoibartarrak bigarren mailako herritartzat dituztela salatu dute: "Ez dago eskubiderik. Elgoibar dagoen lekuan egonda, lotsagarria da daukagun autobus zerbitzua. Donostiara joateko autobusa beteta etortzen da Eibartik, eta Bilbora edo Gasteizera joateko ez daukagu autobus zerbitzurik. Ez dago eskubiderik. Erakundeetatik garraio publikoa erabiltzeko mezuak zabaltzen dituzte etengabe, eta hiriburuetara kotxez sartzeko gero, eta traba gehiago jartzen dituzte. Baina nola nahi dute garraio publikoa erabiltzea modu honetan?". Jende askok hiriburuetan lan egiteari uko egiten diola kontatu du batek, lanera iristeko dauden zailtasunengatik. Ikasleek duten arazoaz ere mintzatu dira, unibertsitateetara iritsi ezinako beste aukera batzuk aztertzea behartzen dituztelako askotan, pisua alokatzera, esaterako: "Baina gaur egun alokairuak duten prezioari familia askok ezin diete aurre egin. Autobusez joatea da askorentzat aukera bakarra, baina horretarako kalitatezko zerbitzua behar dugu". Unibertsitateak hiru hiriburuetan daudela gaineratu dute: "Pentsa Leioan edo Gasteizen ikasten duen elgoibartar batek zelako bidea egin behar duen egunero. Eta hori Elgoibarren bizi garela! Hiru hiriburuak ordu erdira ditugu, ezin hobeto kokatuta dago gure herria, eta ez daukagu zerbitzurik. Lotsagarria

da". Iritsi da errefortzuko autobusa, eta hiru langileak joan dira lanera.

Tarte horretan jendea pilatu da autobus geltokian. Ikasleak dira gehienak orain, eta 07:20ko autobusaren zain daude. 25 minutu aurretik iritsi den ikasle batek bere egoera azaldu digu. Lau bat lagun ditu aurretik, eta gaur lasai dago: "Gaur sartuko naiz, baina ordu hauetan 25 minutu aurretik etortzea ez da eroso". 07:20an hiru autobus etortzen direla kontatu digu. Horietako bi zuzenean joaten dira Ibaetako campusera, eta bat Donostiako autobus estaziora joaten da. "Ordu honetan hemen biltzen garen gehienak ikasleak gara, eta denok nahi izaten dugu unibertsitateetara doan autobusa hartu". Hori lortu ezean, estaziora doan autobusa hartzen dute: "Gaitzerdi! baina horrek suposatzen du gero Donostian beste autobus bat hartu behar izatea unibertsitateetara joateko, eta klasera berandu iristen gara". Bere iritzi, arazoa erraz konpondu daiteke, Elgoibartik zuzenean jarrita autobus bat. Bueltarako ere arazoak izaten dituztela aipatu du, eta esan du ikasturtea hasi denetik ez duela sekula lortu bueltarako autobusa hartzea unibertsitatean.

Mendaroko ikasle batek ere hitz egin du, Mendarokoen kasua kontatzeko. "Mendarokoa izanik Elgoibarrera etorri beharra asumituta daukagu, baina ez da normala ordua baino ordu erdi lehenago etorri behar izatea, eta gainera azken unera arte ez jakitea sartuko naizen edo

ez. 07:10ean irteten da autobusa Eibartik, eta ni askotan 06:50ean Elgoibarko autobus geltokian egoten naiz, eta ez dut autobusean lekurik izaten". Unibertsitatean dituen ikaskideekin alderatu du bere kasua: "Zumaia, Zestoa, Zarautz eta inguruko ikaskideak ditut eta ordu erdiro daukate beraien herrietatik unibertsitatera autobusa. Elgoibarko zerbitzuak asko dauka hobetzeko".

Ilara gero eta luzeagoa da, eta King-Kong zubian gora hasi da jendea pilotatzen. Ikasleez gain, langileak ere badaude. Iritsi dira autobusak, eta bakoitzak berea hartu nahi du. Batzuek estaziora zuzenean doana hartu nahi dute, ikasleek zuzenean unibertsitatera doana eta Zarautzen lan egiten dutenek, berriz, Zarautzera sartzen dena, hiru horietatik bakarra. Ezinegona nabari da herritarren artean, autobus batetik bestera begira ari dira, lekurik badagoen begira. Txoferrak jaitsi dira laguntzera, eta aldaketa batzuk egin dituzte, jendea dagokion lekuan kokatzeko, baina denen gustua ezin izan dute egin, ez zeukatelako lekurik. Ikasle batek bere frustrazioa agertu digu une horretan: "Ikasturtea hasi denetik behin ere ezin izan dut hartu unibertsitatera zuzenean joaten den autobusa. Gaur ere estaziora doan autobusean joan beharko naiz, eta klasera berandu iritsiko naiz. Egoera hau jasanezina da". Haserre dago, baina zorionekoa da autobusa hartu duelako, oraingoan ere kanpoan gelditu baitira hainbat lagun. Horietako bi Zarautzera joatekoak ziren, lanera. Haserre daude, oso haserre. Bietako batek telefonoa hartu du, eta Lurraldebusera deitu du zuzenean: "Ez didate erantzuten, baina ez dut etsiko". Ez da deitzen duen lehenengo aldia. Kexa asko jarri dituela azaldu digu, baina ez diotela erantzunik ematen. Beste langilea haserre dago, baina lasaiago, gaur ez daukalako lanera lehen orduan iritsi beharrik: "Hurrengo autobusaren zain geratuko naiz ea sartzen naizen, eta bestela autoa hartu beharko dut". Hori esateaz bat zenbatu dizkigu autoz joatearen desabantailak: "Askoz garestiagoa da autoz joatea. Autopista eta gasolina ordaindu behar ditut, eta gainera, Zarautzen aparkatzea izugarri kostatzen da. Autobusez joatea askoz merkeagoa eta erosoagoa da, baina daukagun zerbitzuarekin gogaikarria bihurtu da".

## ERAKUNDEAK ARAZOAREN JAKITUN

Lurraldebusek hamaika kexa dauzka dagoeneko. Autobusera igo ezinda geratu den batek esan digu kanpoan geratzen den guztietan deitzen duela kexa jartzeko: "Ez dakit zeozertarako balio duen, baina behintzat jakin dezatela". Beste batek irakurri zuen joan zen astean Maialen Gurrutxaga alkateak agerkari honi emandako erantzuna, eta ulertu arren, uste du Elgoibarko Udalak egin dezakeela zerbait gehiago: "Ulertzen dut garraio publikoa ez dela Udalaren kompetentzia, baina Aldundian bere alderdikideak daude agintean eta guk baino gehiago eragin dezake". Hain justu ere, Elgoibarko Udala, Gipuzkoako Garraio Agintaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia aste honetan bildu dira, eta neurriak hartu dituzte ordutegi jakin batzuetan, autobusen eskari handiari eta espazio faltari aurre egiteko. Udaletik jakinarazi dutenez, errefortzuak jarri dituzte B02 eta UK05 lineetan, honako ordutegi eta irteera hauetan: Ermua: 06:30, 14:40 eta 15:10; Zestoa: 07:10 eta Donostia: 14:30. Erakunde horiek elgoibartarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko konpromisoa hartu dute. Aste honetan bertan jarri dituzte martxan errefortzuak, baina erabilzailleek esan dute ez dela nahikoa: "Astelehen eta asteartean errefortzua etorri zen, baina asteazkeneko egoera bestelakoa izan zen. 06:50ean iritsi zen autobusa, eta lau lagun sartu ziren. 9 geratu ginen kanpoan, eta hori ikustean eman zuen abisua txoferrak. Errefortzuko autobusa berandu etorri zen, eta ni, berandu iritsi nintzen lanera". Arazo handiagoa ikusten dute, dena den, 07:20an, ikasleek ordu horretan hartzen dutelako autobusa, eta indartu beharreko linea hori izan beharko litzatekeela gaineratu dute: "07:20an berdin jarraitzen dugu. Ordu horretan jarri beharko lukete zuzenean unibertsitatera joateko beste autobus bat, Eibartik beteta etortzen direlako".

## GELTOKIA LEKUZ ALDATUKO DUTE

King Kong zubia berritzeko hasi dituzten lanen eraginez, lekuz aldatuko dute autobus geltokia. Donostirantz eta Azkoitirantz doazen autobusak hartu nahi dituztenek, beraz, Guasseko aparkalekuaren ondoan dagoen geltokian hartu beharko dute autobusa, urriaren 2tik aurrera.



## LIZAGASAR ERRONKA JOKATUKO DUTE DOMEKAN

Erronka berezi eta originala antolatu du Casa Astigarra Trail taldeak domekarako: Lizagasar Erronka. Lizagasar sagartokian egingo dute, hango sagastietan barrena. Zortzi kilometro luze ditu ibilbideak, eta 750 metro inguruko desnibel positiboa. Partaideak Casa Astigarraga taldeko kideak izango dira, 30 bat inguru. 60 sagasti sail daude, 30 aldapan gora eta beste 30 aldapan behera. Guztiak pasatu beharko dituzte partaideek, eta azkarrenak irabaziko du. 09:30ean zabalduko dute sagartokiko atea, eta 10:30ean hasiko da proba. Herritarrei dei egin diete proba ikustera joateko, eta eskatu dute oinez joateko, han ez dagoelako aparkatzeko lekurik.

✍️ Ainhoa Andonegi 🐾 Asier Orbea

**A**sier Lizarralde Lizagasar sagartokiko jabeak erakutsi du ekimen handikoa dela. Sagartokiko sagastia ikusteaz bat bururatu zitzaion eremu hartan lasterketa original bat antolatu zitekeela, eta mendian korrika ibiltzen diren hainbat lagunekin partekatu zuen bere ideia. "Hasieran inork ez zidan erronka aintzat

hartu". Baina hilabete amaierako feria batean Jose Luis Diez Txelurekin topo egin zuen eta hark berehala agertu zion interesa. Han gertu zebilen Denis Saiz Casa Astigarraga Trail taldeko presidentea ere, eta berehala batu zen beste bien elkarrizketara: "Biei gustatu zitzairen ideia, eta erronkari forma ematen hasi ginen".



Dena prest dute domekarako. Asierrek prestatu du bidea: belarra moztu du, sailak seinalizatu ditu eta sagartoki ingurua txukuntxukun jarriko du domekarako. 09:30ean zabalduko dituzte sagartokiko atea, eta 10:30ean hasiko da erronka. Herritarrei dei egin diete proba ikustera joateko, lasterketa bitxi eta originala ikusteaz gain, sagartokia bera ezagutzeko aukera ere izango dutela esanda. Gainera, txosna ere jarriko dutela aurreratu dute, ahosabaia gozatzeko. Txorizo egosi pintxoak eta Lizagasarreko produktuak egongo dira aukeran. Musika ere egongo da, eta erronkaren bueltan jai moduko bat antolatu nahi dute.

### EZAUGARRI TEKNIKOAK

Hiru bat hektareatako lursaila hartzen du Lizagasarreko sagartokiak, eta 60 sailetan banatuta daude sagarrondoak: 30 aldapan gora eta 30 aldapan behera. Sail batzuk luzeagoak dira, eta malda ere desberdina dute. Maldarik handiena %35koa da. Sagartoki aurrean hasiko da lasterketa, eta lehenengo sagastiari buelta bat eman beharko diete partaideek kanpoaldetik, eta buelta hori osatutakoan hasiko dira sailetan

barrena korrika. Helmuga sagartokian kokatuko dute. Guztira 8 kilometroko ibilbidea prestatu dute, eta desnibel positiboa 750 bat metrokoa izango da. Ondo bidean, irabazleak ordubeteko denboran amaituko du proba, eta 12:30erako denek izango dute bukatuta. Sari banaketa 13:00etan egingo dute.

Aurtengoan parte-hartzea itxia izango da, eta Casa Astigarraga Trail taldekoek soilik parte hartu ahal izango dute. Denis Saizek eman ditu azalpenak: "Lehenengo aldiz antolatu dugu horrelako proba bitxia, eta ondo irtengo dela pentsatzen dugun arren, egon daitezke okerrak. Beraz, aurtengoa probatzeko edizioa izango da, eta pentsatu dugu taldeko kideok bakarrik parte hartzea izango dela egokiena". Datozen edizioetarako, baina, parte hartzea zabaltzeko asmoa dute.

Ilusionatuta daude antolatzaileak, eta bereziki elkarlana nabarmendu dute: "Horrelakoak sarriago antolatu beharko lirateke jendea Elgoibarren geratzeko eta ez joateko horrenbeste kanpora", esan du Lizarralde. Ideiaz eta proiektuz beterik dauka burua, eta herriko eragileekin elkarlanean gauza asko egin daitezkeela uste du.



*Plano honetan ikusten da korrikalariek osatu beharko duten bidea.*

# HARRERA EGITEAN EUSKARA ETA EUSKAL HERRIA AURKEZTEA FALTA DA

✍️ Ainara Argoitia

'Elgoibarrera bizitzera etorritako jatorri askotariko herritarren bizipen linguistikoak eta euskararekiko dituzten pertzepzioak' lana aurkeztu zuten atzo Ekxhine Eizagirre eta Saioa Iraolak, Udalak iaz zabaldu zuen Gotzon Garate bekaren irabazleek. Soziolinguistika Klusterrak iazko abenduan kaleratu zuen Elgoibarko hizkuntza aniztasunaren maparen osagarri da lana. Mapa hura osatzeko, Elgoibarren erroldatuta dauden biztanleen jatorriak aztertu zituzten eta handik ondorioztatu zuten herrian zenbat hizkuntza berba egin daitezkeen -25etik gora-, jatorri-estatuetakoko hizkuntza aniztasunaren araberrako hipotesiak eginda. Orain, gure artean bizi diren jatorri askotariko lagunei hitza emanda, argazki osatuago bat aurkeztu dute.



*Ekxhine Eizagirre eta Saioa Iraola azterlanaren egileak.*

**E**uskal Herritik haragoko beste lurralde eta herrialdeetatik Elgoibarrera bizitzera etorri diren herritarrei ahotsa eman diete azterlan honetan Ekxhine Eizagirrek eta Saioa Iraolak, haiek euskararekiko dituzten iritzi eta sentipenak ulertu eta ezagutzeko ezinbestekoa ikusten dutelako haien bizimodua eta bizibaldintzak, bizi dituzten zapalkuntza zein pribilegio egoerak eta hizkuntzen erabilerak ezagutzera.

Ikerlana egiteko baliatu duten metodologia kualitatiboa izan da. 18 eta 60 urte bitarteko hamabi lagun elkarrizketatu dituzte, adin

tarte, genero eta jatorri desberdinetakoak eta haiekin egindako elkarrizketa guztiak anonimoan eman dituzte. Entzuketa aktiboa izan dute ikerketaren muina: elkarrizketatuek esaten dutena entzun eta ondo ulertu dutela baieztatu dute ikertzailerek, haiek hizkuntzekiko eta euskararekiko dituzten bizipen zein pertzepzioak identifikatu eta multzokatzeko, uste dutelako hori egin gabe nekez garatu ahal izango direla Elgoibar euskalduntzeko hizkuntza politika eta baliabide eraginkorrak.

Irlanda, Italia, Albania, Errumania, Maroko, Mali, Nikaragua, Dominikar Errepublika,

Argentina, Txina eta Pakistandik etorritakoak dira elkarrizketatuak, eta euskara eta gaztelaniaz gain, beste hamabost hizkuntza berba egiten dituzte: ingelesa, albaniera, arabiera, berberera, mandarinoa, kantonera, italiara, bambara, soninkea, wolofa, urdua, punjabera, errumaniera, galeikoa eta frantsesa. Elgoibarrera bizi hobe baten bila etorritakoak dira elkarrizketatuak, zailak eta mingarriak izan dira haien migrazio prozesuak, eta askoren kasuan, gainera, arrazakeriak alderik alde gurutzatutakoak, arrazializatuak direlako. Haietako batzuei Elgoibarren edo hemen inguruan familia edo lagun bat izatea lagungarri egin zaie, lana edo etxebizitza aurkitzeko, baina era berean, jatorria eta azal koloreagatiko estigma eta arrazakeria tarteko, etxebizitza eta lana topatzeko zailtasun handiak izan dituzte askok. Paperik gabe iritsitakoak dira, gainera, elkarrizketatuetak asko, eta gaur egun indarrean dagoen Atzerritarren legearen ondorioak gorpuztu eta sufritu dituzte. Bizitzeko oinarriko beharrak asetzeko ezintasunak izan dituzte askok, eta egoera horretan, euskara ikastea baino urgentzia handiagoak izan dituzte. Izan ere, "prekarietateak norbere urgentzia, kezka eta errealitatek harago pentsatzea oztopatzen du, eta hizkuntza berri bat ezagutzeko interesa eta kultura berri baterako sarbidea zailtzen ditu, beste zenbait desira eta amesteko aukera, finean". Hala ere, eta euskara ikastea lehentasuna ez izateak ez du esan nahi batzuei ikastea gustatuko ez litzaiekeenik. Elkarrizketatuetak gehienek gaztelarekin nahikoa dutela sentitzen duten arren, batzuek euskara ikasiko luketela esan dute, gehiago sozializatzeko, inguruko pertsonen ulertzeko, lana topatzeko edo seme-alabei laguntzeko.

## ZAPALKUNTZEN GURUTZATZEA

Migrazio prozesuak aztertu dituzte Eizagirrek eta Iraolak, bai eta migratzaileek Elgoibarrera iristean zer topatu duten eta zein helduleku, harreman sare eta bizimodu eraiki dituzten ere, eta era horretan, protagonisten bizimoldeak testuinguratzeaz gain, gorputz horiek zeharkatzen dituzten askotariko zapalkuntzak nahiz pribilegioak -aldi berean, menderatu eta menderatzaile izan gaitetzkeelako egoeraren

**Elgoibarrera bizi hobe baten bila etorritakoak dira elkarrizketatuak, zailak eta mingarriak izan dira haien migrazio prozesuak, eta askoren kasuan, arrazakeriak alderik alde gurutzatutakoak.**

**Prekarietateak norbere urgentzia, kezka eta errealitatek harago pentsatzea oztopatzen du, eta hizkuntza berri bat ezagutzeko interesa eta kultura berri baterako sarbidea zailtzen ditu.**

arabera- nola txirikordaten diren azaldu dute. Batetik egiaztatu dute generoaren aldagaiak zeresan handia duela bizi-baldintzetan: elkarrizketatu dituzten emakume gehienek bizitzeko momenturen batean lan prekarizatuan jardun dute. Lana lortzeko arazoak ere izan dituztela azpimarratu dute askok, arrazakeriagatik, eta kasu askotan, haurrak zaintzeko arduraz izateagatik ere bai.

Generoaz gain, jatorria eta azalaren kolorea ere badira gurean oraindik bazterkeria sufritzeko arrazoi, eta zer esanik ez ahal ekonomikoa, klase soziala. "Zenbat eta beltzagoa izan, orduan eta handiagoa izan ohi da jasan beharreko zailtasun, bortizkeria eta bazterkeria". Zuritasunak, beraz, jarrera arrazista asko saihesten ditu lehen bistan, baina nabarmendu dute hizkuntza azentuak edo eta jatorria ezagutzeak aurreiritzi eta jarrera horiek aktiba ditzaketela. Era berean, zehaztu dute ez dela gauza bera, europarra izanda, Italian edo Errumanian jaioa izatea. Arrazakeria, beraz, egiturazkoa da Elgoibarren ere.

## HIZKUNTZA ERRADIOGRAFIA

Elgoibarren 25 hizkuntzatik gora hitz egiten dira, baina hizkuntza komunitate ezberdinek





*Auzoko egitasmoaren baitan Elgoibarren aurten egin duten jaiko argazkia.*

elkarren artean nahasteko "joera urria" dute. Eta horixe da hain zuzen ere elkarrizketatuek azpimarratu dutena: erdal eta euskal komunitateak bereizita daudela. Beste ideia bat ere nabarmendu dute: gutxi egiten dela euskaraz Elgoibarren, eta beraz, bizi daitekeela euskaraz jakin gabe; gaztelaniaz jakin barik, ordea, ez. Hala, gaztelania aurrez zekitenen kasuan, gehienek horrekin nahikoa zutela sentitu dute, nahiz eta batzuek aitortu duten euskara ez jakiteagatik lana topatzeko zailtasunak izan dituztela. Soziolinguistika Klusterrak iaz egindako ikerketa kuantitatiboaren arabera, Elgoibarren bizi diren jatorri atzeritarreko biztanleen %49,2k gaztelania dute hizkuntza ofiziala jatorrian; hamabitik hamarrek. Beste bik ulertzeko zailtasunak dituzte. Euskararen argazkia oso bestelakoa da, baina. Nahiz eta denek ezagutu berba bat edo beste, hamabitik bakarra da euskaraz berba egiteko gai.

Beraz fokua haiek egiten edo egiten ez dutenean jarri ordez beti, beharbada hobe genuke guk geuk oker egiten ditugunetan

jartzea batzuetan, hutsune batzuk identifikatu dituztelako azterlanean. Elkarrizketatuek adierazi dute, herritarrek, euskal hiztunak barne, gehienetan gazteleraz zuzentzen zaizkiela, eta hona iritsi orduko, gaztelania ikasteko aholkua jasotzen dutela, kalean zein administrazioan. Egin diegun harreran, beraz, gure kultura eta hizkuntzari buruzko transmisiorik ez da egon, eta horren adierazle da elkarrizketatu batzuek hemen euskara berba egiten denik ere ez jakitea edo Euskal Herria ez ezagutzea. "Gaztelania jakin edo ez, elkarrizketatu askok Elgoibarrera iritsi berritan (eta ondoren ere bai) ez zuten Euskal Herria kultura eta hizkuntza propioa duen nazio edo lurralde historiko gisa ezagutzen". Euskara sustatu eta ikasteko Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak ere ez dituzte ezagutzen askok, eta hortik ondorioztatu dute ikertzaileek espazio komunak izateak edo erreferentziazko harreragune bat eskura izateak asko erraztuko lukeela egiteko hori, bai eta hizkuntzari lotutako udal zerbitzuak

ezagutzera emateko bide berriak pentsatzeak ere.

Elkarrizketatu dituzten guztiek dakizkitez euskarazko berba bakarren batzuk, baina hizkuntzak ikasteko orduan hainbat zailtasun izan dituztela aipatu dute: hitz egiteko espazio falta, ikasteko denbora eta diru falta, eta alferkeria. Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, berriz, jatorri askotariko herritar gehienek etxeko hizkuntza mantentzeko aukera egin dute, eta ondorengoei ere transmititu diete. Badira, hizkuntzen artean sailkapenik ez dela egin behar uste dutenak ere, eta adierazgarria da, esaterako, hizkuntza ez hegemonikoak edo gutxiutuak dakizkitenek euskararekin parekatzen dituztela eta garrantzitsua irizten diotela horiek mantentzeari.

Hizkuntza praktika guztien atzean, beraz, askotariko arrazoiak daude: harreman sareak, eguneroko ohiturak edo etorkizunerako intentzioak, adina, seme-alabak dituzten ala ez, hitz egiten dituzten hizkuntza kopuruak, gaztelaniaz dakiten ala ez, eta hizkuntzari atxikitako balioak eta hizkuntza ideologiak. Gehienek hizkuntza global gisa definitzen dute gaztelania. Ingelesa jakitea ere garrantzitsua da askorentzat, eta bai bat zein bestea euskara baino garrantzitsuagoak direla uste dute. Balio handiagoa esleitzen diote gaztelania eta ingelesari, eta horrenbestez hizkuntza horiek ikasteko motibazioa ere handiagoa da. Era berean, euskara ikasteko hizkuntza zaila den ustea ere badute elkarrizketatuek eta sarri errepikatzen dute. Horri lotuta beste ezaugarri batzuk ere atxikitzen dizkiote zenbaitek euskarari: hizkuntza zaila dela eta zaharra.

## GOMENDIOAK

Azterketa honetatik ondorioztatu dute behar ditugula espazioak hizkuntza komunitate ezberdinak elkartzeko eta behar dugula baita ere jatorri askotariko herritarrei arreta eta akonpainamendua emango dien erreferentziazko espazio bat ere, bai eta bitartekari kultural baten figura sortzea ere zerbitzu publikoetan. Baina gomendio gehiago ere egin dituzte:

- Aisialdia ulertzeko dituzten modu desberdinak aintzat hartzea. Elgoibarko komunitateak elkar

**Hona iritsi orduko,  
gaztelania ikasteko aholkua  
jasotzen dute jatorri askotariko  
herritarrek eta egin zaien harreran  
ez da egon gure kultura eta hizkuntzari  
buruzko transmisiorik.**

**Balio handiagoa esleitzen diote  
gaztelania eta ingelesari  
euskarari baino, eta horrenbestez,  
hizkuntza horiek ikasteko  
motibazioa handiagoa da. Euskara  
ikastea zaila den ustea ere badute.**

ezagutzeko eta kulturartekotasuna ikuspegi eraikitzaile batetik garatzeko, espazio komunak sortzea. Udalak espazio horiek erraztea.

- Euskararekiko esperientzia positiboak sustatzea eta euskalduntzea sustatzeko jatorri askotariko herritarren motiboak aintzat hartzea eta sustatzea.

- Herrian euskararen erabilera sustatzeko plan integralak sustatzea, lan arautuan, enplegua eta euskalduntzea uztartzeko proiektuak garatuz, etxeko lanetan jarduten duten emakumeentzako ikastaro bereziak antolatuz... Eta euskara praktikatzeko espazio informalak sortzea.

- Hizkuntza baliabideak indartzeko beharra: doakotasuna, ikastaroen ordutegiaren malgutasuna, plaza eta ikastaro gehiago.

- Hizkuntza politikak ikuspegi dekolonial batetik lantzea, besteak beste, hizkuntza politikak eta beste kulturak eta hizkuntzak babestu eta balioan jartzeko. Kulturartekotasuna sustatu eta arrazakeriaren aurkako jarrera indartzeko beharra.

- Euskararen diglosia egoera kontuan hartu eta euskal hiztunak ahalduntzeko beharra. Euskara balioan jartzeko beharra.

## Literaturaz eta euskaraz solastuko dira hilaren 7an letren munduko erreferenteak, Elgoibarren

Zelakoa da euskal irakurlea? Zein gara eta zenbat? Zelakoa da gure lengoiaia literarioa? Nondik edaten dugu? Zer itzultzen dugu eta zer ez? Zergatik? Nola sortzen da irakurlea? Zelan ematen da literaturzaletasunaren transmisioa? Nork-Nori-Nork?. Galdera horiei eta gehiagori erantzuten ahaleginduko dira bihar zortzirako, urriaren 7rako, Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean antolatu duten *Euskara ala ezkara literaturan?* jardunaldian, IMHn. 09:30ean hasi eta 14:30ean bukatuko da jardunaldia eta letren munduko aurpegi ezagun asko bilduko dituzte bertan.

Andu Lertxundi idazleak egingo ditu atarikoak, eta ondoren, Harkaitz Zubiri idazleak *Kulturak gutzia alda dezake* hitzaldia emango du. Hitz egokiaren bila jardungo dira gero Iñigo Aranbarri idazlea eta Miren Amuriza bertsolari eta idazlea,

eta itzulpengintza izango dute gero solasaldirako gai Harkaitz Cano idazleak, Arrate Hidalgo itzultzaile eta editoreak eta Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak. Mahai-inguru formatoa izango du horrek, eta beste mahai-inguru bati emango dio sarrera, ondoren, Asier Serrano, Irati Jimenez eta Jasone Osoro idazleak literaturzaletasunaren transmisioaz jardungo baitira, *Nola sortzen da irakurlea?* izenburupean.

Oihana Arana bertsolari eta idazleak propio *Euskara ala ezkara?* jardunaldirako idatzitako *Zenbat bizi!* testua irakurriko du gero, eta Uxue Alberdi eta Iban Urizar *Amorantek* emango diote azkena, meza nagusia deitu dioten saioarekin. Antolatzaileek aurreratu dute areto nagusiko sarreran azoka ere antolatuko dutela liburuak ikusteko eta erosteko aukerarekin. Informazio gehiagorako: 943 741 626.

### Adingabeen kontrako sexu abusuez solastuko dira Lilan, haurrentzako 'Lolaren bizikleta' ipuina tarteko

*Lolaren bizikleta* haurrentzako ipuina aurkeztuko dute urriaren 5ean (eguna), Lilan, 18:00etatik 20:00etara. Adingabeen kontrako sexu-abusuen inguruko ipuina da, katalanetik euskarara ekarritakoa, eta proiektuaren sustatzaileek eurek aurkeztuko dute, Judit Piella ilustratzaileak eta Alba Barbe eta Laia Pibernat idazleek, baina liburu aurkezpen hutsa baino gehiago izango da. Saio irekia izango da eguenekoa, gaztelaniaz. Urriaren 9rako beste saio bat antolatu dute, baina Herri Eskolan, eta hango irakasleentzat.

### Erromeria egingo dute urriaren 6an Azkueko berdegunean

Familientzako erromeria antolatu dute urriaren 6rako Atxutxiamaikak, Ludotekak eta Musika Eskolak. 17:00etatik aurrera, Azkue auzoko ermitako zelaietan Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleen emanaldiak izango dira, eta instrumentuak sortzeko eskulanak ere egingo dituzte.

### Gianni Chiriatti artista italiarraren lanekin erakusketa osatu dute Elgoibarko Salento Pizzerian



Gianni Chiriatti *Borgagne* artista suitzarraren artelanelan jarriko dituzte ikusgai Elgoibarko Salento Pizzerian, gaurtik urriaren 8ra, *Era è Sarà metamorfosi* izeneko erakusketaren baitan. Gianni Chiriatti Suitzako San Galo hirian jaio zen 1973an, baina haurtzarora bi hiriren artean pasatu zuen, bere jaioterriaren eta Italiako Salento hirien artean, hain justu ere. Salenton du bititokia egun eta handik ezagutzen du Erminio De Carlo, Salento jatetxeko ugazaba. Borgagnek aurrez ere erakutsi izan ditu bere margolanak Elgoibarren. 2017. urtean, esaterako, Elgoibarren egin zuen egonaldian sortu zituen gero Salenton erakusgai ipini zituen margolanak.



## Euskararen aurkako oldarraldi judiziala salatzen, Bilbora deitu dute azaroaren 4rako



**E**uskararen aurrerabideen kontra egon diren epaien aurka egiteko antolatu du manifestazioa euskalgintzak azaroaren 4rako. Bilbon izango da manifestazioa eta *Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat* izango du leloa. Manifestazioa Euskalduna jauregitik abiatuko da, 17:00etan, eta euskararen alde inoiz egin den manifestazio jendetsuena izango dela aurreikusi zuten antolatzaileek. Manifestaziora joateko deia ez ezik, honen bultzadan parte hartzeko deia ere egin zieten martitzeneko agerraldian norbanako zein eragile sozial eta politikoei.

Joan den maiatzaren 10ean EAEko Auzitegi Nagusiaren atarian egin zuten bezala, euskararen normalizazioaren kontrako epai sortarekiko desadostasuna agertu zuten prentsaurrekora batutako eragileek. Erandioko Udalekoa, Uliazpi Fundazioari buruzkoa, Barakaldokoa, Irungo udaltzainena edo euskara hizkuntza "zailegia" dela argudiatu zuten Laudioko sententzia gogoratu zituzten, besteak beste. Era berean uztailaren 6an oldarraldiak beste koska bat gora egin zuela azaldu zuten Idurre Eskisabel Kontseiluko idazkari nagusiak: Espainiako Konstituzio Auzitegiak udalerrri euskaldunei euskara hutsez funtzionatzeko aukerak murriztu zizkien, EAEko Udal Legeko 6.2.

artikulua partzialki baliogabetuta. "Euskararen normalizazioan aurrerapausoa egiteko tresna sendo bat indargabetu zuen. Baina, horrez gain, adostasun sozial handi baten kontrakoa izan zen epai hori, Udal Legea gehiengo zabalez onartu baitzen Eusko Legebiltzarrean", esan zuen Eskisabelek. "Euskaltzale guztiok eta oro har, hizkuntza berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan sinesten dugun guztiok, noranzko bateratuan aritzea ezinbestekoa da", esan zuen guzti horren harira Eskisabelek eta nabarmendu zuen denon indarrak beharko direla "oldarraldiari hesia jartzeko". Horren harira manifestazioaren alde atxikimendua emateko aukera izango dela ere zabaldu zute [www.kontseilua.eus](http://www.kontseilua.eus) webgunean eragile eta norbanakoentzat.

### Autobusak Bilborako eta ekitaldia, Elgoibarren

Azaroaren 4ko manifestazioarekin bat egin du Elgoibarko Euskarak 365 Egun Taldeak ere, eta Bilbora joateko autobusak antolatuko ditu Elgoibartik. Era berean, eta manifestaziorako indarrak batu aldera, elkarretaratzea ere antolatu dute urriaren 26rako. Kalegoen plazan izango da, 19:00etan, eta parte hartzera deitu dituzte herritar guztiak.

---

### Aire libreko margo lehiaketa antolatu dute Mendaron, zapaturako

Zapatuan, hilaren 30ean, egingo dute aire libreko margo lehiaketa Mendaron, 09:00etatik 14:00ak bitartean. Bi sail izango ditu lehiaketak, gazteena eta helduena, eta guztira sei lan nabarmenduko ditu epaimahaiak. Gazteen sailean bi maila bereiztu dituzte: HH2tik LH2ra artekoa bata, eta LH3tik DBH3kora, bestea. Helduen sailean lau sari banatuko dituzte. Artistak

09:00etan hasiko dira lanean eta 14:00etarako bukatu beharko dituzte lanak beranduenez [Lanak zigilatze ordutegia: 08:30-11:00]. Sariak 14:30ean banatuko dituzte, frontoian. Lehiaketako lanekin erakusketa osatuko dute ondoren Lagun Betikoak ondoko lokalean, urriaren 6tik 8ra. Erakusketako ordutegia: 12:00-14:00 / 18:00-20:00.

## Hiru eguneko egitaraua antolatu dute Aiastian San Migel jaien harira

**G**aur, 10:30ean, hasiko dituzte San Migel zaindariaren omenezko jaiak Aiastia auzoan, kanpai jotzearekin. 11:00etan meza izango dute, eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituztela ere aurreratu dute. Baltzola eta Andonegi trikitilariak girotuko dute meza-ostekoa. Ondoren, 13:00etarako, pilota partida dute iragarrita eta bazkaltzeko elkartuko dira gero, 14:00etan. Baina jaiak jarraipena izango du bihar eta etzi ere. Egitarau osoa agendan daukazue ikusgai, baina ohar bat: bihar iluntzetik aurrera autobus zerbitzua egongo da Aiastiara, Txarridunako errotondatik.



19:00etatik 05:00ak bitarteko ordutegian ibiliko da gora eta behera autobusa.

---

### Bezeroek euskaraz egitea errazteko 'Barra-barra' marka berria jarriko dute Elgoibarko establezimenduetan

Elgoibarko Izarra elkarteak eta Elgoibarko Udalak bat egin dute Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak sortu duten *Euskaraz barra-barra* markarekin. Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan euskararen erabilera handitzeko sortu dute marka, eta bi baldintza hauek betetzen dituzten establezimenduek eskatu ahalko dute: batetik, uneoro establezimenduan euskaraz dakien edo ulertuko duen langile bat daukanak, eta bestetik, eta langile guztiak euskaldunak ez diren establezimenduen kasuan, euskaraz dakien edo ulertzen duen langileak identifikagarri bat edo lepoko bat

eramatea, markaren irudiarekin. Marka eskuratzeko baldintzak betetzen dituen establezimenduak *Euskaraz barra-barra* dioen ikur bat eskuratuko du atean jartzeko eta ikur horrekin bezero euskaldunei adieraziko diete euskaraz lasai aritzeko aukera dutela beren establezimenduan, bermatuta izango dutelako euskaraz ulertzen duten langileak egongo direla.

Kanpainan parte hartzeko interesa duenak Elgoibarko Izarra elkartekoekin jarri behar du harremanetan [kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus](mailto:kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzita, edota telefono bidez (643 499 169 Amaia Lasagabaster).

---

### Errosarioko amaren ezpata-dantza dantzatuko dute Haritz Euskal Dantzari Taldekoek urriaren 7an

Haritz dantzari taldeko dantzariak, Elgoibarko Udalaren txistulari banda eta eskopetariak meza ostean aterako dira ezpata-dantza egitera San Bartolome parrokiatik (11:00etan da meza nagusia). 2009an egin zuten estreinakoz Errosarioko amaren ezpata-dantza eta tradizio bihurtu da. Parrokiatik abiatu eta San Bartolome eta Errosario kaleetan barrena ibiliko dira dantzariak, eta bidean lau geldialdi egingo dituzte dantzarako: eliza atarian, Altzolatarrren Dorretxea edo Kultur Etxearen aurrean, Errosario kalean eta udaletxe aurrean.



## Urrezko Pioleta irabazteko hautagaietako bat da Aritza Monasterio

2022ko jarduera alpino onak saritzen ditu Frantzian antolatzen den Urrezko Pioleta sariak, eta saria irabazteko hautagaien artean dago Aritza Monasterio mendigoizale elgoibartarrak Peruko Andeetan eginiko jarduera. Monasterio 2017an ere izendatu zuten Piolet d'Or sari prestigiotsua jasotzeko. Epaia azaroan emango badute ere, antolatzaileek hautagaien berri eman dute orain. Adituen taldeak *Big List* edo zerrenda handia osatu du, euren ustez Urrezko Pioleta irabaztea merezi duten 53 aktibitatez osatua. Zerrenda luze horretan ageri dira lau euskal alpinista: Aritza Monasterio, Iker eta Eneko Pou anaiak eta Tasio Martin.



Huarazen bizi den andinista elgoibartarra Hualcaneko ekialdeko hormaren lehen igoeragatik dago jarduera onenen zerrendan. *Fango Fiesta* marra berria (ED, M5, 60º-85º) zabaltzeko bi esloveniar sokakide izan zituen: Andrej Jez

eta Anja Petek. Datozen asteotan epaimahai teknikoak jarduera sarituen berri emango du; bizpahiru eskalada sarituko dituzte. Eta sari banaketa ekitaldia azaroaren 14tik 16a egingo dute Brianconen (Frantzia).

### Eneko Etxaniz eta Julen Dobarro gailendu dira EH Kopan, euren adin tartean

Zazpi lasterketek osatu dute Mendi Lasterketen 2023 Lineako Euskal Herriko Kopa, eta sailkapen nagusiko lehen postua eskuratu dute Eneko Etxaniz elgoibartarrak jubeniletan, eta, Julen Dobarro mendaroarrak kadeteetan. Joan den martxoan hasi zen zirkuitua Kolazino lasterketarekin, eta Mendaroko Kilimon trail izan zen bigarrena. Lehen sei lasterketak jokatu ostean, Azkainen jokatu zuten finala irailaren 23an, Skyrhune proba. Gazteenen artean TtkiSkyrhune lasterketa jokatu zuten, 10 kilometro eta 600 metroko desnibel positiboarekin. Etxanizek eta Dobarrok lasterketa ona egin zuten eta aurreneko postuetan sailkatu ziren. EH Kopan, zazpi lasterketetako emaitzak kontuan izanda, Julen Dobarrorentzat izan da titulua kadete mailan eta Eneko Etxanizentzat gazteen maila parekatukoa.



### Sanloren garagardo azoka, urriaren 5etik 8ra

Urriaren 5ean, eguenean, zabalduko dute Maalan SanloBeer garagardo festa, eta domekara bitartean zuzeneko musika emanaldiek, bingoak edo dantzaldiek girotuko dute garagardo azoka. Bederatzi garagardo mota egongo dira aukeran: Free Damm, Complot Ipa, Keler,

Estrella Damm, Damm Lemon, Radeberger, Oro Bilbao, Grimbergen eta Bock Damm. Jatekoari dagokionez, egunero salduko dituzte ukondoa, saltxitxak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak. Azken egunean, domekan, paella erraldoi bat prestatuko dute.



## Paula Calvo igerilariak urrezko hiru domina irabazi ditu infantil mailako Espainiako Txapelketan

Infantil mailako Espainiako Igeriketa Txapelketa jokatu zuten uztail amaieran, Sabadellen (Katalunia) eta erakustaldia eman zuen Paula Calvo igerilari elgoibartarrak. Urrezko hiru domina irabazi zituen, hirurak bizkar estiloko lasterketetan: 50, 100 eta 200 metroetako probetan. Gainera, Europako Txapelketa jokatzeko gutxieneko marka lortu zuen, parte hartzeari uko egin bazion ere. Sabadelleko proba jokatu eta egun batzuetara, Espainiako txapelketa absolutuan hartu zuen parte Eibar Igerixan taldeko kideak, Malagan, parte hartu ahal izateko gutxieneko marka lortua baitzuen aurrez. Hala, 14 urteko igerilaria, 2009an jaioa, bera baino askoz helduagoak diren lehiakideekin aritu zen igerian 50 eta 100 metro bizkar estiloko lasterketetan. Aurreneko postuetatik urrun gelditu arren, esperientzia aberasgarria izan zela esan du.



### Eskola Kirol Egokituaren programa jarriko dute abian desgaitasuna duten haur eta gazteentzat



Iaz hasitako bidetik, Eskola Kirol Egokituaren programan parte hartzeko aukera izango dute desgaitasuna duten haur eta gazteek. Iaz moduan, 6 eta 21 urte bitarteko haur eta gazte desgaituei kirol jarduera egokituetan parte hartzeko aukera eskaintzen die programak. Elgoibarko Udalak antolatu du, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioarekin lankidetzan. Antolatzaileen esanetan, parte-hartzaileei kirol-esperientzia inklusiboa eta aberasgarria eskaintzea da helburua. Erabiltzaileek hainbat kiroletan aritzeko aukera izango dute, bakoitzaren beharretara egokitzeko eta "kalitatezko kirol-esperientzia eskaintzeko" diseinatua dagoen programaren barruan.

Gainera, astean behin aretoko jarduera batean parte hartzeko aukera izango dute, Olaizaga kiroldegian. Urritik aurrera bi taldek ekingo diote programari: Lehen Hezkuntzako taldea: martitzenetan, 17:00etatik 18:00etara, Olaizaga kiroldegian. Bigarren Hezkuntzako taldea: martitzenetan 18:00etatik 19:00etara Olaizaga kiroldegian. Berrikuntzak ere iragarri dituzte, pala egokituaren aritzeko saioak adibidez. Taldea osatzen badute eguaztenetan arituko dira palan, Ikastolako frontoian, 19:00etan. Izen-emateak irailaren 26ra arte egongo dira zabalik. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943 462 514 telefono zenbakira edo idatzi [multikirola@gkef-fgda.org](mailto:multikirola@gkef-fgda.org) helbide elektronikora.

## Agurra batzuentzat; hasiera besteentzat

**E**lgoibarko Lagun Taldea Txirrindulari eskolakoeak joan den astean amaitu zuten txirrindulari denboraldia. Taldeko juniorrak Azpeitian eta Antzuolan jokaturako lasterketetan lehiatu ziren eta 2022-2023 denboraldiari ez ezik, taldeari eta kategoriari ere agur esan diote Eneko Ortega, Aritz Esnaola eta Aitor Arranz txirrindulariek (argazkian). Klubetik egindako lanagatik eskerrak eman dizkiete, eta zorterik onena opatu diete hurrengo erronketarako.

Denboraldia amaitu berri bada ere, Elgoibarko Lagun Taldekoak hasi dira urriaren 4an hasiko duten denboraldi berrirako prestatzen. Lehen lana txirrindulari gazteak taldera erakartzea izango da. Horregatik, 2015. urtetik aurrera jaiotako neska-mutilak taldera batzera animatu dituzte. Interesatuek [elt\\_txe@hotmail.com](mailto:elt_txe@hotmail.com) helbidera idatzita argitu ditzakete galdera eta zalantza guztiak. Taldetik nabarmendu dute urria hilabete berezia izaten dela eurentzat. Batetik, pista denboraldiari hasiera emango diote urriaren 4an, taldekideei pistan ibiltzeko bizikletak banatuta. Eta, bestetik, urtero moduan Idotorbeko bizikleta igoera antolatuko



dute urriaren 12rako, Pilarika Egunerako (12:00). Taldetik zehaztu duten moduan, txirrindularitza proba herrikoia da Idotorbeko Igoera, tradizio handikoa Elgoibarren. Idotorbeko Igoeran parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute izena, 10:30etik 11:30era, Kalegoen plazan. 12:00etan hasiko da lasterketa plazatik eta 3,8 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Idotorbe gaineraino.

### Gauz egiteko BTT irteera antolatu du Morkaikok, gaurko



Elgoibar, Karakate, Irukurutzeta eta Pol Pol lotuko dituen mendi bizikleta irteera antolatu du Morkaikok gaurko (irailak 29), baina badu berezitasun bat irteera honek: gauz egingo dutela. 19:15ean irtengo dira Mintxetako aparkalekutik eta Sallobenterako bidea hartuko dute Azkaratera igoteko. Handik Sargoate, Pol-Pol eta Irukurutzetatik pasa ostean Karakateraino joango dira, berriro Elgoibarrera jaisteko. 25 kilometro eta 900 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea, osotasunean, zailtasun maila fisiko altukoa dela ohartarazi dute, eta irteeran parte hartzeko derrigorrezkoa izango da iraupen eta indar handiko argia eramatea. Parte hartzeko izena eman behar da [morkaiko.eus](http://morkaiko.eus) webgunearen bidez.

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke. Titulua eta esperientzi handia ditut. Orduka. Ospitaleko zaintzak egiteko ere prest nago. **604 910 708**

Etxeak, portalak, tailerrak... garbitzen egingo nuke lan. **622 775 211**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxez-etxeko laguntzaile titulua daukat. **685 724 861**

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. **673 764 776**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat. Elgoibarren eta Mendaron egingo nuke lan. Orduka. **643 278 344**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Esperientziaduna. **644 943 297**

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauze. **604 986 450**

Adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago, baita animaliak paseatzeko ere. Asteazken zehar edo asteburuetan. Esperientziaduna. **697 958 198**

Adinekoak zaintzeko edota etxeetan garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **642 577 823**

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, baita txakurrak paseatzeko ere. Esperientzia daukat. **641 756 213**

**PARTIKULARRAK**

12 urteko ikasleari matematika klaseak emateko prest dagoen irakaslea behar dut. **680 808 125**

**KINTOAK**

1978an jaiotako kinto bazkaria urriaren 21ean, Belaustegin. 12:00etan batuko dira Kalegoen plazan, eta autobusa 13:30ean izango da, Txankakuan. Bazkaria, afari-merienda eta DJa. Itzulera 23:30ean. Interesatuak 75 euro sartu behar dituzte kontu honetan, urriaren 17rako: ES0630080182831267384319 (Bizum 607 253 909)

**BESTELAKOAK**

Santa Klarako garaje batean betaurreko batzuk topatu ditut. **629 526 082**


Aukera bikaina! Oso egoera onean dagoen sofa-ohoa salgai. 1,35 neurriko ohea egiten da. Egongelako mahaia ere saltzen dut. **630 517 095**



 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enpresa Administrazioen Kontseilua</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitateko jabe batek etxe bat baino gehiago ditu komunitatean bertan, eta azken bi urteetan ez ditu ordaindu etxe horietako bati dagozkion kuotak. Jakin nahi nuke arrazoi horrengatik eskubideak murriztuta dituen.</b></p> <p>Legeak adierazten duenez, batzarra hasteko unean komunitatean ordura arte sortutako zorren ordainketan egunean ez dauden jabeek, zor horiek judizialki aurkaratu edo inpugnatu ez badituzte edo zordundutako zenbatekoa epailearen edo notarioaren zainpean utzi ez badute, eztabaidetan parte hartu ahal izango dute, baina ez dute boto-eskubiderik izango. Jurisprudentzia kontsolidatua da, eta adierazten du jabe bakoitzari boto bat dagokiola, nahiz eta etxebizitza bakarraren edo batzuen titularra izan, gehiago ekonomikoaren ondorioetarako duen partaidetza-kuota handiagoa ahaztu gabe. Hau da, komunitateko kuotak ez ordaintzeari dagokionez, boto-eskubidea izateko aipatutako baldintza guztiak bete behar dira. Hala nola, batzarra hasteko unean dagoen egoera egiaztatzea, jabeek komunitatearekin dituzten zor guztiak ordainduta izatea, eta, azkenik, zor horiek judizialki aurkaratu ez badituzte edo zordundutako zenbatekoa epailearen edo notarioaren zainpean utzi ez badute.</p> <p><b>Ondorioa: boto eskubidea ukatzea orokorra da, zigor gisa aplikatzen baitzaie batzarra hasteko unean komunitateak aurrez izandako zor guztien ordainketa egunean ez duten jabeek. Beraz, komunitateko kuota guztiak ordaintzen ez dituen bitartean, boto eskubiderik ez du izango.</b></p> <p><b>GO&amp;R</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---





Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO buleonra, *barren@elgoibarkoizarra.eus* e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **Jare!** Urriaren 2xan, 5 urte haundi! Bost belarri tirakada eta muxuak, maittia!



Zorionak, **Itxaso**, bihar 10 urte beteko dituzulako. Muxu asko, denon partez.



Zorionak, **Garazi**, atzo 8 urte potolo bete zenituelako! Txapelduna! Patxo handi bat, etxekoan partetik.



Zorionak, **Unai eta Ainara**, familiako guztion partez. Ondo pasatu zuen ezkontza egunean eta zoriontsuak izan!

## EXPRESS ESKAINTZAK!

COMBI BOSCH  
KGN39XIEA HOZKAILUA

COMBI BOSCH  
KGN39XWEA HOZKAILUA



A T G  
E

859 €



A T G  
E

759 €

- No Frost
- 203cm-ko altuera
- 368 litro
- Aztamen kontrako herdoilgaitza

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## Artezteko makinaren fabrikaziorako Elgoibarko enpresa batek (Doimak S.A.) diseinu eta produktu garapenerako ingeniaria behar du lantalderako.

### ■ LANPOSTUA:

- Diseinu eta produktu garapenerako ingeniaria

### ■ HEZIKETA:

- Ingeniaritza Mekanikoa eta Diseinu industrialia

### ■ BEHARREZKOAK DIREN EZAUPIDEAK:

- Fabrikazio Teknologiak, CAD Diseinuko teknologiak, Geometria eta Ingeniaritza Kalkuluak.
- Hizkuntzak: Euskara eta Ingelesa.

### ■ DESKRIBAPENA:

- Hautagaia Bulego Teknikoan integratuko da eta Multzo eta Makinen diseinuaz arduratuko da.
- Egin beharreko zereginak hauek dira: Baldintza teknikoak aztertea, fabrikazio planoak 2D-en garatzea eta azpimultzoak eta makinak 3D-en garatzea.

### ■ ESKAINTZA:

- Lanabes-makina sektoreko enpresa garrantzitsu batean sartzea.
- Eduki teknologikodun eta etengabeko hobekuntza eskatzen duen enpresan girotzen den garapen profesionala.

### ■ BESTE ESKAKIZUN BATZUK:

- Komenigarria da hautagaia Eibar edo Elgoibar inguruan bizitzea.

Interesatuak bidali curriculumak: [srodriguez@doimak.es](mailto:srodriguez@doimak.es)

## 30 ZAPATUA

**Hil bukaerako feria**

**09:00 - 14:00** Elgoibarko baserrietako eta ArTalde artisau taldekoen produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

**11:00** C.D. Elgoibarrek zabalduko du txosna, eta Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin prestatutako pintxoak salduko dituzte.

**12:00** Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

**Eguerditik aurrera**, ganadu feria, Kalebarren plazan.

**09:00** Aire libreko margo lehiaketa, Mendaron. Sari banaketa, 14:30ean egingo dute, frontoian.

## 1 DOMEKA

**10:30** Lizagasar erronka. Lizagasar sagartokian. Casa Astigarraga Trail taldekoek hartuko dute parte.

## 2 ASTELEHENA

**Taberna ordutegia** Dislexiari buruzko erakusketa. Kultur Kafean.

## 4 EGUAZTENA

**17:00** Familiei orientazioa. Dislexiari buruzko informazioa emateko saioa. Kultur Kafean.

**21:00** Dislexiari buruzko dokumentala. Dislegi Debabarrenak Ongarriekin elkarlanean antolatuta, Herriko Antzokian.

## 5 EGUENA

**Denden ordutegian**, stock feria. Txankakuak antolatuta, denden kanpoaldean.

**17:00** Dislexiari buruzko kafe tertulia, Kultur Kafean. Segidan, Dislegi pintxo potea, Aizu! ostalariaren elkartearen eskutik.

**18:00** 'Lolaren bizikleta' liburuaren aurkezpena. Lilan. Gaztelaniaz.

**18:30** Sanlobeer garagardo festaren irekiera. Urriaren 8ra arte egongo da zabalik, Maalako parkean.

## 6 BARIKUA

**Denden ordutegian**, stock feria. Txankakuak antolatuta, denden kanpoaldean.

**18:30** Miguel Trillo argazkilaria 'Hiri tipologiak' erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxean.

## SAN MIGEL JAIK

### 29 BARIKUA

**10:30** Kanpai jotzea

**11:00** Meza eta ondoren, meza-ostekoa Baltzola eta Andonegi trikitilariekin. Salda eta txorizoa banatuko dituzte.

**13:00** Pilota partidak

**14:30** Bazkaria.

### 30 ZAPATUA

**13:00** Umeentzako jolasak

**14:30** Bazkaria. Bazkal ondoren umeentzako puzgarriak eta txapa tailerra.

**17:30** Bolo txapelketa

**19:30** Haritz dantza taldearen emanaldia.

**21:30** Afaria.

**23:30** Erromeria, Emaion taldearekin.

**Ondoren**, 3 hirukiak Dj-a.

\* Autobusa egongo da 19:00etatik 05:00etara, Txarridunako errotondatik.

### 1 DOMEKA

**12:00** Artzain txakur txapelketa.

**17:00** Idi demak: Soarte (Elgoibar), Oriden (Orio) eta Kamiñoko (Murua).

**Segidan**, Baltzola eta Andonegi trikitilariak.

## BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**nen bulegora etorri eta berria emango dizugu. Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea. Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



## Zinea

### Iñaki Agirre zinemaldia



**'Tori y Lokita'**  
29 barikua: 21:00

**'Matria'**  
30, zapatua:  
19:00 / 22:15  
1, domeka: 19:00  
2, astelehena: 21:00

**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)  
OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

### IRAILA

29 BARIKUA  
30 ZAPATUA

### URRIA

1 DOMEKA  
2 ASTELEHENA  
3 MARTITZENA  
4 EGUAZTENA  
5 EGUENA  
6 BARIKUA

### Egunez

Arriola  
■ Fernandez / ■ Garitaonandia

■ Fernandez  
Yudego  
■ Oruesagasti  
Barrenetxea  
■ Ibañez  
Garitaonandia

**2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**  
**943 203 052**

■ Fernandez:  
Herriko Enparantza,4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

## Eta, Debabarrenean zer?

**Euskal Jaia, Deban, irailaren 30ean.** Marmitako lehiaketak (10:00), Kalez Kale txistulariek (10:30), Zubietako joaldunek (11:30), Gure Kai eta musika eskolako dantzariak (12:00), trikitilariak (13:30), Zuhatza elkarteak antolatutako bazkari herrikoiak (15:00), buruhandiek (18:00), Joselontxo's txarangak (19:00) eta Nonbait taldearen erromeriak (23:30) osatuko dute egitaraua. Baserritarrez janzteko deia egin die Kultura-Euskara Batzordeak herritarrei.



I. URTEURRENA

## Jazinto Alzibar Osa

2022ko irailaren 30ean hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailaren 30ean, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak.

***Aitte, aittitte, orain arte joan zara  
bidean gurekin,  
beti aurretik argi eginez.  
Aitte, aittitte, orain zure urratsen atzetik  
bidea egiten dihardugu  
eta jarraituko dugu zuk nahi bezala  
denok beti elkarrekin.  
Mila muxu, aitte-aittite.***

Etxekoak







Vera  
Diez  
Vazquez

6 urte, Elgoibar




*"Kolorintxi"*



Beñat  
Arizaga  
Loiola

5 urte, Elgoibar



*"Zalduna gazteluan"*

Aurki itzazu hizki-zopa honetan eguzki-sistemako zortzi planeten izenak:

G	O	A	R	E	E	R	P	J	S	B
T	N	R	H	W	T	N	L	U	Q	U
V	R	R	O	F	T	H	U	P	U	Z
N	U	A	M	N	B	Z	R	I	E	T
Y	T	Z	I	E	U	Q	R	T	C	X
H	A	I	L	P	R	T	A	E	D	D
I	S	T	K	O	O	K	P	R	P	P
D	X	R	N	Q	B	U	U	E	H	S
U	V	A	J	S	N	C	T	R	N	G
S	R	U	J	D	Y	T	Z	O	I	S
U	Q	E	T	R	A	M	J	L	Y	O

ARTIZARRA  
JUPITER  
LURRA  
MARTE  
MERKURIO  
NEPTUNO  
SATURNO  
URANO.

## MATEMATIKAK

Peru eta Miren eskolako lanak egiten ari dira. Jarri dagokion eragiketa ikurra (+ / -) hutsune bakoitzean:

$$20 \dots 5 \dots 1 = 16$$

$$17 \dots 3 \dots 10 = 30$$

$$5 \dots 5 \dots 5 = 5$$

$$38 \dots 2 \dots 3 = 37$$

$$66 \dots 10 \dots 4 = 80$$

$$31 \dots 7 \dots 8 = 46$$

## ASMAKIZUNAK

Ea asmatzen dituzun asmakizun hauek!

*Eguzkia hasieran, bukaeran lorea.*

*Gogorra eta ezitia, Gabonetako jakia.*

*Ateri bada, makulu;  
euria bada, aterpe.*

Erantzunak: \_\_\_\_\_

$$20 - 5 + 1 = 16$$

$$17 + 3 + 10 = 30$$

$$5 + 5 - 5 = 5$$

$$38 + 2 - 3 = 37$$

$$66 + 10 + 4 = 80$$

$$31 + 7 + 8 = 46$$

ATERKIA  
TURROIA  
EGUZKILOREA  
Asmakizunak:





# ELGOIBAR STOCK KALE AZOKA



Urriak **5-6**

10:00-13:00 eta 17:00-20:00



Postuak establezimendu atarietan egongo dira.



Parte hartzeko eta informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 747 301 zenbakira.